

HIZNET 2014-2015  
SAKONTZE EGITASMOA

**ITZULPENGINTZA ETA  
EUSKARAREN NORMALIZAZIOA  
ADMINISTRAZIOAN.**

**ORAIN ARTEKOA ETA  
AURRERA BEGIRA**

Egilea: Maitane Díez Landajo  
Tutorea: Eneko Oregi Goñi

## AURKIBIDEA

|  |         |
|--|---------|
| Laburpena.....   | 3. or.  |
| Aurrekariak eta testuingurua.....  | 4. or.  |
| Euskal Herrira etorrira.....   | 7. or.  |
| Administrazioaren egitekoa hizkuntza gutxitu baten<br>normalizazioan .....                         | 8. or.  |
| Itzulpengintzaren eta hizkuntza normalizazioaren garapena EAEko<br>administrazio publikoetan ..... | 9. or.  |
| Eusko Jaurlaritza .....  | 10. or. |
| • Osakidetza .....   | 13. or. |
| • Arlo juridikoa .....   | 15. or. |
| Gipuzkoako Foru Aldundia.....  | 18. or. |
| Nafarroa .....   | 20. or. |
| Iparraldea .....   | 21. or. |
| Udalerriak.....  | 21. or. |
| • Nafarroa.....  | 22. or. |
| • Iparraldea.....  | 23. or. |
| • UEMA .....   | 24. or. |
| • Kontseiluaren azterketa.....   | 24. or. |
| Itzulpenak ere arazoak ditu .....  | 25. or. |
| Aurrera begira .....   | 26. or. |
| • Ekimen berriak Administrazioan .....   | 27. or. |
| • Katalunian hartutako bidea .....   | 28. or. |
| • Hizkuntza konbinazioa euskararen itzulpengintzan.....  | 30. or. |
| • Interpretazioa .....   | 32. or. |
| • Aliantzak sortzeko premia .....  | 33. or. |
| • Sektore pribatua .....   | 24. or. |
| • Azken hitza.....   | 35. or. |
| Bibliografia .....   | 36. or. |

## LABURPENA

Sakontze egitasmo honen xedea itzulpengintzak (eta, neurri txikiagoan, interpretazioak) euskararen normalizazioan daukan eragina aztertzea da, erakunde publikoei erreparatuz; orain arte arlo honetan egindako lana azalduko da, eta etorkizuneko erronkak aipatuko dira ondoren.

Horretarako, lehendabizi, gaiaren hastapenak aurkeztuko dira; ondoren, hizkuntza baten normalizazioan erakunde publikoek daukaten betebeharra azalduko dugu. Jarraian, zenbait erakunde publikoren lana azalduko dugu; hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritza, Eusko Jaurlaritzaren mendeko arlo batzuk eta Gipuzkoako Foru Aldundia izango ditugu hizpide; maila apalagoan aipatuko ditugu zenbait udalerrik, Nafarroa Garaiak eta Iparraldeko bizi duten egoera.

Lanaren azken partean itzulpengintzak eragin ditzakeen arazoei erreparatuko diegu; bukatzeko, aurrera begiratuko dugu, etorkizuneko erronkak aipatu eta arlo honetan eman daitezkeen zenbait aurrerapauso iradokiko dira.

Lan honen tutorea Eneko Oregi Goñi izan da, Eusko Jaurlaritzako IVAPeko Euskara zuzendariordea.

## AURREKARIAK ETA TESTUINGURUA

Itzulpengintzak garrantzia handia izan du historian zehar hainbat hizkuntzaren modernizazioan; izan ere, hizkuntza askoren kasuan, itzulpengintzak ekarri zuen ordura arte soilik ahozko jarduna zeukaten hizkuntzak idazten hastea, hau da, zenbait hizkuntza itzulpen bati esker idatzi ziren lehen aldiz. Horrez gain, hizkuntza ugari beste erabilera esparru batzuetara zabaldu ziren eta prestigioa lortu zuten itzulpengintzari esker. Ildo beretik, hizkuntza horien hiztegia, lexikoa eta gramatika arautzea eta estandarizatzea ere itzulpengintzari esker lortu zen, eta ondoren, baita terminologia eta fraseologia estandarizatzea ere. Geroago iritsi zen hizkuntza horiek hezkuntzara iristea, profesional kualifikatuak hizkuntza horretan jarduten hastea edota hizkuntza horretako hedabideak izatea.

Aipatutako prozesu hori XV-XVI. mendeetan gertatu zen hizkuntza askoren kasuan. Garai hartan erlijio kristauak garrantzia handia zuen munduko leku askotan, eta, hala, testu erlijiosoan itzulpenari esker lortu ziren aipatutako hizkuntza garapenaren aurrerapauso ugari. Hizkuntza alemanaren kasua bereziki nabarmena eta ezaguna da; 1522. urtean, Martin Luterok (1483-1546) itzulitako Bibliaren atal batzuk argitaratu ziren, artean herritar gehienak analfabetoak zirela; Luteroren asmoa herritar xumeek testu sakratuak eskuragarri izatea zen, eta helburua betetzeaz gain hizkuntza alemana estandarizatzea ere lortu zuen. Gaur egun, oraindik ere, Luteroren lana erreferentziazkotzat jotzen da alemanaren garapena azaltzerakoan, eta hark hizkuntzari emandako oinarriak indarrean jarraitzen du orain ere. Hala, itzulpen batek zenbateko eragina izan dezakeen frogatzen du alemanaren esperientziak.

Hizkuntza alemanaren kasuan ez ezik, beste hizkuntza askoren bilakaera ere parekoa izan zen. Finlandiera edo suomieraren kasuan, esaterako, lehenengo adierazpen idatzia Mikael Agricola izeneko abade batek egin zuen, XVI. mendean. Biblia itzultzea zuen helburu hark ere, baina horretarako finlandiera estandarren arauak ezarri behar izan zituen lehendabizi. Horretarako, beste hizkuntza batzuetan oinarritu zen, besteak beste, suedieran edota latinean, eta Finlandiako ekialdeko dialektoak erreferentzia gisa hartu zituen. Mikael Agricolak ezarritako hainbat ezaugarrik indarrean jarraitzen dute gaur egungo finlandieran ere.

Hala, hasierako urrats horiek eman zituzten hizkuntza asko estatu bateko hizkuntza ofizial bihurtu ziren ondoren, eta halaxe jarraitzen dute gaur egun ere. Esan daiteke, beraz, hizkuntza baten ofizialtasunean ere itzulpengintzak eragina

daukala. Aipatutakoen artean gehienak hizkuntza erabat normalizatuak eta onartuak dira gaur egun, gizartearen eremu eta egoera guztietan erabiltzen dira eta inork ez du haien prestigioa zalantzan jartzen. Horrenbestez, esan bezala, hizkuntza baten normalizazioan eta modernizazioan itzulpengintzak garrantzia nabarmena dauka.

Lehenago aipatu dugun moduan, Bibliaren itzulpenak berebiziko garrantzia izan zuen hizkuntza askoren zabalkundean, estandarizazioan eta modernizazioan, tartean baita euskararen kasuan ere. Horretan Joanes Leizarraga (Beskoitze, 1506 – Bastida, 1601) aipatu behar da ezinbestean; kalbindar artzaina zen, eta erlijio testuak herritar xumeen artean zabaldu behar zirela sinesten zuen. Hala, Joana III.a Albretekoak, Nafarroako erreginak, Biblia itzultzeko baliabideak eman zizkion. Horretarako, Leizarragak frantseseko itzulpena eta Vulgata (latinez) testuak erabili zituen jatorrizko iturri gisa, eta 1571. urteko irailean plazaratu zuen liburua.<sup>1</sup> Horrez gain, fededunak hezteko beste testu batzuk ere inprimatu zituen. Hala, gizartearengana iristeko euskararen kasuan ere itzulpena erabili zela ikus dezakegu, eta esperientzia hura euskararen normalizaziorako ekimen gisa jo daiteke.

Itzulpengintza are garrantzitsuagoa da hizkuntza gutxituen normalizazio prozesuen kasuan; garrantzitsua baino, ezinbesteko urratsa da hizkuntza gutxitu baten normalizazioan; baina itzulpengintza are funtsezkoagoa da hizkuntza handiekin batera eremu berean bizi diren hizkuntza gutxituen kasuan, hau da, elebitasun edo diglosia egoeran bizi diren hizkuntza gutxituen normalizazioan eta modernizazioan, euskararen kasuan, adibidez, gaztelaniarekin eta frantsesarekin batera bizi delako. Izan ere, hizkuntza gutxituaren presentzia bermatzen du, beste esparru batzuetara eramaten du eta estandarizatzen eta homogeneizatzen laguntzen du. Testuinguru elebidunetan itzulpen jarduna soilik hasierako fasean erabiltzeaz gain, etengabe erabili behar izaten da eta, horren ondorioz, itzulpengintza elementu berezi bihurtzen da diglosian bizi den edozein hizkuntza gutxituren kasuan. Lagungarriak eta ezinbestekoak dira horrelakoetan itzulpen eta interpretazio jardunak, baina neurritz eta taxuz erabili ezean hizkuntza gutxituaren normalizazioaren kalterako ere izan daitezke.

Marta Xirinachs i Codina Kataluniako Generalitateko Hizkuntza Politikako Zuzendariordetza Nagusiko arduraduna da, eta horrela mintzatu zen hizpide dugun gaiari dagokionez:

*En la fase inicial de un proceso de normalización, la traducción ocupa un papel relevante en un organismo. Evidentemente, en la Generalitat de Cataluña al adoptar como lengua propia y de uso normal el catalán, la corrección de textos y la formación del personal eran y son actividades más necesarias y frecuentes que la traducción. La traducción del castellano al catalán fue una medida esporádica y transitoria, que no afectaba por igual a todo el personal y a todas las unidades de la Administración. De ninguna manera se quería*

---

<sup>1</sup> *Jesu Christ Gure Iaunaren Testamentu Berria.*

*fomentar la comodidad de no progresar en el aprendizaje y el uso del catalán por parte del personal.*

Hau da, dokumentuak gaztelaniaz sortu eta katalanera itzuliz gero, eta ohitura hori errotuz gero, horrek oztopatu egingo luke, Marta Xirinachsen ustetan, langileek katalana laneko hizkuntza gisa erabiltzea edo erabiltzeko trebatzea.

Horrelako egoeretan, testuinguru elebidunetan edo diglosia egoeretan itzulpengintzak ez ezik beste alderdi ugari ere garrantzia hartzen dute: bi hiztun komunitateen arteko harremanak, hizkuntzen prestigioa, hizkuntza gutxituaren estatus ofizialak, gizartearen iritziak elebitasunari dagokionez, etab. Estatu mailan arlo hau gehien landu duen autorea Xabier Baixeras idazle eta itzultzaile galziarra da. 1994ko Galeusca ekimenean eskaini zuen hitzaldian ere jorratu zuen:

*Normalizazio linguistikoa lortzeko tresna da itzulpengintza eta, aldi berean, hizkuntzaren normalizazioa neurtzeko termometroa ere izan daiteke. Erroman, inperioaren garaian edota Alemanian XVI. mendean itzulpena hizkuntzaren egoera normalizatzeko erabili zen baliabidea izan zen. Normalizazioa dagoen edo ez dagoen adierazten badu ere, itzulitako lanen kantitate handia egote soilak ez du esan nahi hizkuntza bat normalizatuta dagoenik.*

Kataluniako eta Galiziako egoerak ezagutzen ditu Baixerak hobekien, bi hizkuntza horien arteko itzulpenak egiten dituelako, eta bi hizkuntza komunitate horiek erkatu ohi ditu. Konparazio horietan, autoreak galegoaren eta katalanaren estatusa, administrazioaren inplikazioa eta bestelako aldagaiak aipatzen ditu hizkuntza baten eta besteren arteko aldeak azaltzeko, betiere bi hizkuntza eremu berean bizi direnean eta hizkuntzetako bat gutxitua denean.

*Urtetan hizkuntza galegoak ez du kontsiderazio kulturik izan. Arrantzale, baserritar eta artisauen hizkuntza izan da eta ikuspuntu literariotik begiratuta modu marjinallean erabili izan da hizkuntza. Beraz, itzultzaileak ez zuen kulturazko hizkuntzarik esku artean, horretarako hizkuntza selektibo bat behar delako, minimoki estandarizatutakoa. Hizkuntza batua urtetan falta izan da Galizian eta ziurta dezaket, lekuko izan naizelako, interesik ere ez dela izan hori existi zedin. Katalunian kontrakoa da. Katalana burgesen hizkuntza izan da eta beraz berau garatzeko baliabideak eta borondate politikoa aspaldidanik finkatu dira. Hala ere, ezin esan daiteke normalizazioa erabatekoa denik, hor baititugu hizkuntz normalizaziorako politikari gabe Balear irlak eta Valentzia.*(Argia, 1504. alea, 1994-11-13)<sup>2</sup>

Autore honek azaldu duenez, beraz, hizkuntza katalanak badu prestigioa, eta hizkuntza horri bultzada emateko borondate politikoa aspalditik sendotuta dago;

---

<sup>2</sup> <http://www.argia.eus/argia-astekaria/1504/gizarteak-ez-du-erantzuten>

galegoaren kasuan, berriz, hizkuntzak ez du prestigiorik eta administrazioa ez da ahalegin horretan inplikatu.

Horrez gain, Marta Xirinachsek gai hau Kataluniako Generalitatean nola landu den azaldu zuen:

*La traducción ha contribuido a la fijación del lenguaje administrativo y jurídico catalán. No podemos olvidar que desde el siglo XV hasta la primera mitad del siglo XX el uso del catalán en la Administración ha sido nulo, por lo que en el proceso de recuperación del uso social de la lengua se ha partido de modelos en castellano. La traducción ha servido, entre otras cosas, para plantearse aspectos de modernización del lenguaje y el estudio de la terminología propia de la especialidad.*<sup>3</sup>

Horrenbestez, diglosian bizi den hizkuntza gutxitu baten normalizazio prozesuan itzulpengintzak berebiziko garrantzia dauka. Horrekin batera, normalizazio prozesu horretan Administrazioa eragile nagusia izan ohi da.

## EUSKAL HERRIRA ETORRITA

Euskararen kasuan ere, itzulpengintzak eta normalizazioak aspalditik izan dute lotura. Esan bezala, Joanes Leizarragak Testamentu Berriaren itzulpena plazaratu zuen 1571. urtean, eta hura izan zen euskaratutako lehendabiziko testua. Erljio testua herri xumeari helarazteko itzuli zuen; gizartean, oro har, eragin handia zeukan testu baten itzulpena izan zen neurrian, euskararen normalizazioan ere zeresana izan zuen. Ondoren, XVII. mendean itzulitako lan gehienak obra aszetikoak ziren; orduko itzultzaileen artean aipatu behar dira Joanes Etxeberri Ziburukoa, Joanes Haranburu, Arnaut Oihenart eta Pedro Axular. XVIII. mendean, berriz, debozio liburuen itzulpen ugari egin ziren euskarara, baita euskara kultura hizkuntzaren estatusera iristeko itzulpenak ere (Manuel Larramendi, Agustin Kardaberaz, Jose Antonio Mogel). Hor ere itzulpengintza euskararen normalizaziorako erabili nahi zutela antzeman daiteke. XIX. mendeko itzulpen ezagunenak Bonaparteren aginduz egin ziren; euskarak printze frantsesaren arreta bereganatu zuen eta euskalkiak aztertzeo hainbat itzulpen egiteko eskatu zuen. Ondoren, XIX. mende amaieran Resurrección María de Azkue eta Gregorio Arrue ere itzulpen lanetan aritu ziren.<sup>4</sup>

Nikolas Ormaetxea *Orixek* ekin zion itzulpen libreaki. Literatura itzultzen hasi zen, lehiaketa bat irabazi ondoren (1928); besteak beste, *El Quijote* eta *El Lazarillo de Tormes* euskaratu zituen. Garai bertsukoak diren Jokin Zaitegi, Andima Ibiñagabitia edota Bedita Larrakoetxea ere aipatu behar dira. Hasierako

<sup>3</sup> Senez aldizkaria (ikusi Bibliografia atala).

<sup>4</sup> Aiora Jaka (2005): Literatura en lengua vasca y traducción

itzulpenak aldizkari eta bestelako argitalpenetan plazaratzen zituzten (*Euzko Gogoia, Olerki* edota *Egan*). Gabriel Aresti ere ezin da aipatu gabe utzi, eta ondoren etorri diren beste idazle itzultzaile garrantzitsu batzuk ere ez, tartean Joseba Sarrionandia.

Literatura itzultzeari dagokionez, Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretuen Elkartearen (EIZIE) eta Eusko Jaurlaritzaren ekimen bateratua aipatu behar da, Literatura Unibertsalarena, alegia. Egitasmoa 1989. urtean jarri zuten martxan, EIZIE eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren artean hainbat bilera egin ondoren. Hala, urtero lehiaketa bat egitea erabaki zuten, aukeratutako zenbait lan klasikoren itzulpena egiteko. Izan ere, bileretan zabaltasunez onartu zuten bezala, mundu mailako obra handiak euskaraz izatea garrantzitsua zen eta EIZIEk ezin zuen horrelako betebeharrak alboratu. Hortaz, lehenengo edizio hartan zazpi liburu itzuli eta Ibaizabal argitaletxearekin argitaratu ziren. Harrezkero, lehiaketa urtero egiten da eta gaur egun Elkar eta Alberdania argitaletxeekin plazaratzen dira.<sup>5</sup>

Euskararen itzulpengintzaren historia eta literatura itzulpenak alde batera utzita, itzulpengintzari eta hizkuntza gutxituen normalizazioari dagokionez Administrazioen erakunde publikoak aipatu behar dira ezinbestean; izan ere, Administrazioak berebiziko garrantzia dauka hizkuntza gutxitu baten normalizazioan, euskararen kasuan ez ezik baita gainerako hizkuntza gutxituen kasuan ere.

## ADMINISTRATIOAREN EGITEKOA HIZKUNTZA GUTXITU BATEN NORMALIZAZIOAN

Hizkuntza gutxitu baten normalizazioan Administrazioak berebiziko garrantzia dauka. Izan ere, Administrazioak botere, estatus eta irismen izugarria dauka, baita horretarako eskumena ere, eta hizkuntza bat babesteko eta sustatzeko lan nabarmena egin dezake; horrez gain, Administrazioak bere jardunerako hizkuntza jakin bat bereganatzen duenean hizkuntza horrek ere prestigioa eta praktikotasuna eskuratzen ditu, eta esparru eta erabilera berrietara hedatzen da.

Horren haritik, Administrazioaren kasuan ere, itzulpengintza izan ohi da hizkuntza gutxituak Administrazioan erabiltzen hasteko lehen urratsa (edo bigarrena, ahozkoaren ondoren).

Hala, lehenik eta behin, Administrazioak aitortpen ofiziala eman ohi dio hizkuntza gutxitu bati. Horrek esan nahi du Administrazioak bere hizkuntza gisa

---

<sup>5</sup> Aiora Jaka(2005): *Literatura en lengua vasca y traducción*



hartzen duela hizkuntza gutxitu hori (ordura arte zeukan beste hizkuntzaren batekin batera gerta daiteke). Horretarako, lehenago aipatu bezala, itzulpengintza izan ohi da lehendabiziko bideetako bat, eredu gisa hartzen diren zenbait baliabide beste hizkuntza batzuetan egoten direlako, eta horiek hizkuntza gutxitura itzultzea izan ohi delako egin beharreko lehendabiziko betebeharretako bat.

Horren ondorioz, hizkuntza gutxitua beste esparru batzuetan erabiltzen hastean ondorioz, hizkuntza horretako terminologia eta fraseologia lantzen dira. Hizkuntza bera estandarizatu egiten da, termino jakin batzuk finkatu egiten dira esparru bakoitzean erabiltzeko eta diskurtsoak homogeneousatu eta bateratu egiten dira. Gizartea inoiz ezagutu gabeko erabilera batzuetara ohitzen da, eta horrek Administrazioaz kanpoko hitzunen erabilerarengan ere eragina dauka.

Horrek, logikoa denez, hizkuntza gutxituan lan egiteko tresnak eta baliabideak eskaintzen ditu. Hala, aipatu bezala terminologia eta fraseologia hedatzen doan neurrian horretarako material lagungarria ere plazaratu ohi da, eta hizkuntzaren lexikoa, gramatika, estiloa eta erregistroak finkatu egiten dira. Halaber, Administrazioaren barneko testuak hizkuntza gutxitu horretan ere eskuragarri izaten dira, tartean legeak, dekretuak, arauak, protokoloak...

Beraz, Administrazioak hizkuntza gutxitu bat normalizatzeko bideari ekiten dionean, prozesuari gizarte osoak atera dakioke etekina; Administrazioarentzat berarentzat ez ezik gizartearen gainerako kideentzat eta hizkuntza gutxituarentzat ere onuragarria da.

## **ITZULPENGINTZAREN ETA HIZKUNTZA NORMALIZAZIOAREN GARAPENA EAEko ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAN**

Datozen lerroetan, Euskal Herrira etorrira gai hau Administrazioan nola landu den aztertuko dugu. Administrazioaren barruan hainbat entitate aztertuko ditugu, maila desberdinetakoak; hasteko, Eusko Jaurlaritza eta Eusko Jaurlaritzaren mendeko zenbait entitatek abiarazitako ekimenak aztertuko ditugu; ondoren, probintzia mailako erakundeei erreparatuko diegu, kasu honetan Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako lana azalduko dugu; arlo publikoarekin bukatzeko, udalerrri mailako erakunde batzuei egingo diegu tartea.

Euskal Herriko administrazioek maila desberdinetako estatus ofizialak eman dizkiote euskarari; Iparraldean euskarak ez du inolako estatus ofizialik, esaterako, eta Nafarroako Foru Komunitatean euskararen egoera ofiziala komunitate barruko eremuen arabera da, *zonifikazio* izenez ezagutzen dena. Euskal Autonomia Erkidegoan, bestalde, Eusko Jaurlaritzak hainbat lege eta dekretu bidez arautu du gai hau, eta organismo horrek jarri ditu martxan esparru honetako ekimen eta egitasmo nagusiak.

Euskal Autonomia Erkidegotik hasiko gara, eta hainbat entitate aztertuko ditugu. Hasteko, erakunde gorena izango dugu aztergai.

## EUSKO JAURLARITZA

Eusko Jaurlaritzak euskarari dagokionez egindako lanaren abiapuntua 1936. urtean jar dezakegu; izan ere, 1936ko urriaren 9an Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria euskaraz ere argitaratu zen, eta hala jarraitu zuen 1937. urteko ekainera arte (*Euzkadiko Agintaritzaren Egunerokoa*). Jesus Leizaolaren ardurapean, epaile bat eta *Eguna* egunkaritik etorritako beste itzultzaile batzuk ahalegin saiatua egin zuten euskarazko testu ulergarriak eta zehatzak sortzeko. Ondoren geldialdi bat izan zen, harik eta 1980. urtean aldizkaria berriz euskaraz argitaratzeari ekin zitzaion arte. Hortaz, esan behar da Eusko Jaurlaritzak hasiera-hasieratik izan zuela euskararekiko atxikimendua.

Horren haritik, Eusko Legebiltzarrak 1982. urteko azaroaren 24an onartu zuen Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizko 10/1982 Legea, Carlos Garaikoetxea lehendakari zela. Ofizialtasuna 1979ko Estatutuak eman zion euskarari, baina Euskararen Legeak lanerako hainbat oinarri finkatu zituen.

Eusko Jaurlaritzak euskarari dagokionez egindako lana azaltzeko ezinbestekoa da IVAP, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, aipatzea. 1981ean sortu zen IVAP, eta euskararen erakundetzean eragile nagusia izan dela esan daiteke. Aurretik, IVAEP izan zuen aurrekari gisa, eta 1980ko otsailaren 20an Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian HAEIEren araudia argitaratu zen; hor jaso zen, lehen aldiz, erakundearen helburuen artean:

*Euskera Euskal Herriko Herri Arduralaritzaren Hizkuntza gisa sartzea, zabaltzea, erabiltzea, eta araupetzea. Autonomia Estatutoaren seigarren atalal adierazten duen elebitasuna lortzeko.*

Eusko Jaurlaritzako langileek euskararen gaineko kezka nabarmena zuten, eta handik gutxira hasi ziren jardunaldi eta ekimenak antolatzen, 1982ko urrian, esaterako, Euskara Legea onartu eta egun gutxira, Oñatin egoeraren lehen diagnostikoa egiteko jardunaldiak egin ziren. Ondoren, Hizkuntza

Normalkuntzako Teknikarientzako III. Mahai ingurua egin zen Gasteizen 1987ko maiatzean, aurretik Katalunian eta Galizian antolatutakoen jarraipena eginez. Horrez gain, Administrazioako Hizkera eta Terminologiaz Jardunaldiak ere antolatu zituzten 1989ko ekainean, Gasteizen.

Hasierako urte haietan terminologiak eta itzulpengintzak berebiziko garrantzia lortu zuten, eta hala frogatzen du UZEIk (hizkuntzaren arloan zerbitzuak eskaintzeko 1977an sortutako erakundea) eta IVAPek elkarlanean 1997ko azaroan Terminologia Biltzarra antolatu izana. Mundu mailako eragile ugari etorri zen, eta UZEI eta IVAP elkarlanean ari dira harrezkero.

Ordukoak dira, baita ere, arlo honetan landutako hasierako lanak eta jarraibideak:

*Material erabilgarria prestatzeari ekin zitzaion, lehen argitalpena 1986ko Administrazioarako Euskal Eskuliburua izan zen zenbait udal itzultzailearen laguntzarekin egina. Gaztelania-euskara hiztegitxo batean ordura arte IVAPek landutako fitxategia eta euskal administrazioarako egindako itzulpenen emaitza. IVAPen lehen saiakera haiek ikusteko bertara jo daiteke.*<sup>6</sup>

Itzulpengintzari dagokionez, bada, historikoki, hasieran, badirudi itzulpen jarduna sinbolikoa izan zela Euskal Autonomia Erkidegoan; ondoren, poliki-poliki, normalizazioan lagundu zuen, eta terminologia bateratu, erabili eta hedatzen hasi zen; hala, eragin estandarizatzailea izan du zalantzarik gabe. Itzulpengintza zerbitzu ofizialei dagokienez, 1997. urtea aipatu behar da:

*1997an Autonomia Erkidegoko Administrazioaren baitan itzulpengintzak hartu zuen garrantziak eta Herri Administrazioako Hizkuntza Normalizazioarako II. Planean eman zitzaion pisuaren ondorioz, itzulpengintzari buruzko txosten bat prestatzeko eskatu zitzaion IVAPi. Hala prestatu zuen Juan Isasik. Horren ondorioz, Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala arautzeko dekretua onartu zen 2000ko otsailaren 29an. Horren arabera, IZO IVAPi atxikitako zerbitzu bat da, bere dekretu propioz eta bere dituen egitekoen.*<sup>7</sup>

IZOren betebeharren dagokienez, itzulpen eta interpretazio zerbitzuak eskaintzea da, Administrazioari zein herritarrei, euskarazko itzulpenen zehaztasuna eta baliokidetzat bermatuz. Horrez gain, administrazio terminologia ere landu eta zaindu behar du.

Hala, gaur egun egoera bestelakoa da Eusko Jaurlaritzan. Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak lantalde zabala eta prestatua du, punta-puntako materiala erabiltzen dute eta era askotako testuak itzultzen dituzte. Gaztelaniatik euskara itzultzea izan ohi da hizkuntza konbinazio ohikoena, eta interpretazio jardunak ere eskaintzen ditu zerbitzuak. Gauza bera esan daiteke hizkuntza

---

<sup>6</sup> Oregi, Eneko: Hizkera Juridikoa eta Itzulpengintza: euskararen norabideak jardunaldiak (2004).

<sup>7</sup> Oregi, Eneko: Hizkera Juridikoa eta Itzulpengintza: euskararen norabideak jardunaldiak (2004).

normalizatzeari dagokionez ere; arlo sendoa da Eusko Jaurlaritzaren barruan eta egitura finkoa eta aberatsa dauka.

Berriki, Eusko Jaurlaritzako arlo honetako zenbait adituk hausnarketa egin du itzulpen jardunak ez ote duen, hain justu ere, nolabait oztopatzen euskararen normalizazioa; izan ere, itzulpen zerbitzua izateak nolabait funtzionarioak desanimatzen ditu testuak zuzenean euskaraz sortzera. Hala, euskaraz idazten saiatu beharrean gaztelaniaz sortu eta itzulpen zerbitzura bidaltzen dituzte, automatikoki, han itzul ditzaten. Ondorioz, funtzionario horien euskara ikasteko premia jaitsi egiten da. Horrenbestez, beste aukera batzuk aztertzen ari dira, eta Bosgarren Hizkuntza Plangintzari jarraiki, korredakzioa izan daiteke aurrera begira ezarriko den helburu berrietako bat, alegia Kanadan erabiltzen duten aipatutako sistema. Korredakzioa eduki jakin bat aldi berean bi hizkuntzatan idaztean datza; hala, bi bertsio sortzen dira, jatorrizko bi testu txukun, gauza bera esateko, baina bat ez da bestearen morroi, ez da itzulpena. Horretarako elkarlana baliatzen da, legelariaren eta testua idatziko duen profesionalaren artean. Emaitza gisa sortutako bi testuek balio berdina daukate, eta bertsio bakoitzak dagokion hizkuntzaren nolakotasuna errespetatzen du, bestearen morroi izan gabe. Aurrerago azalduko dugun moduan, Kanadan, esaterako arlo juridikoan aplikatzen da korredakzioa, baina beste esparru batzuetan ere aplikatu daiteke. Eusko Jaurlaritzari dagokionez, IZO<sup>8</sup> 2009. urtean eskaini zien bezeroei korredakzioaren sistema, eta zenbait esperientzia dagoeneko egin dira. Aurrera begira ere badirudi Eusko Jaurlaritzak bide honi ekingo diola.<sup>8</sup>

Eusko Jaurlaritzak martxan jarritako ekimenen artean itzulpen automatikoarena ezin da aipatu gabe utzi hizpide dugun arlo honetan. 2012an jarri zuen martxan Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, eta [www.itzultzailea.euskadi.net](http://www.itzultzailea.euskadi.net) webgunean dago eskuragarri edozeinentzat. Gaztelaniatik euskarara, euskaratik gaztelaniara eta ingelesetik euskarara itzultzeko aukera eskaintzen du, eta oraingoz testu laburrak itzultzen dituen arren, aurrerantzean testu luzeago eta konplexuagoak itzultzeko gai izatea da helburua. Itzulpen automatikoak hainbat eragozpen dituen arren, ekimen txalogarria da, euskarari begira abiarazitakoa eta, gainera, jarraipen egokia eginez gero hobetu eta aberastu daitekeena.

Ildo beretik, hainbat erakundek orain arteko itzulpen memoriak jende guztiarentzat eskuragarri jarri dituzte, besteak beste, Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak edota Gipuzkoako Foru Aldundiak. Hori ere oso positiboa da itzulpenen batasunerako eta koherentziarako ez ezik baita euskararen normalizaziorako ere, itzulpengintzaren sektorean diharduten enpresek eta *freelance* itzultzaileek ongi aplikatuz gero gaztelaniazko hainbat moldetarako euskarazko ordain bateratuak emango direlako eta hori aberasgarria eta onuragarria da euskararen normalizaziorako.

---

<sup>8</sup> Eneko Oregi eta Zelai Nikolas: [http://www.erabili.eus/zer\\_berri/muinetik/1264492222/#ref3](http://www.erabili.eus/zer_berri/muinetik/1264492222/#ref3)

Eusko Jaurlaritzak berak abiarazitako proiektuez gain, badira arlo honetan lan nabarmena egin duten Eusko Jaurlaritzaren mendeko hainbat entitate ere; horien artean zenbait adibide nabarmenduko ditugu.

## Osakidetza

Eusko Jaurlaritzaren normalizazio planetan beti aipatu ohi da bertan ezarritakoa Eusko Jaurlaritzari ez ezik Eusko Jaurlaritzaren mendeko erakunde autonomiadunei ere aplikatu behar zaiela. Eusko Jaurlaritzak hainbat erakunde autonomiadun ditu, besteak beste, Osakidetza.

Osasun arloaz arduratzen den atala da Osakidetza; 1984. urtean sortu zen, osasun zentroen sare zabala dauka EAEn, lehen mailako arretako zentroetatik hasi eta ospitale garrantzitsuetara arte, eta euskal gizarteak asko estimatzen duen prestazio publikoetako bat da. Esandakoaren haritik, beste erakunde batzuek bezalaxe Osakidetzak ere badauka euskararen erabilera normalizatzeko plana; une honetan indarrean dagoena bigarren plana da, 2013-2019 aldiari dagokiona. Aurreko erabilera planean haxe ezarri zen itzulpengintzari zegokionez:

*Hizkuntz normalizazioaren prozesua lan egiteko moduaren aldaketa da, eta horren protagonista nagusia erakundea bera da. Apurka-apurka, aldaketak sartu eta, horien eraginez, orain arte elebakarra zen jarduera asistentzial edo administrazioiko baten ordeztu jarduera elebiduna sartuko da. Itzulpenak bigarren mailako balioa dauka, eta horren helburua, batez ere, herritarren eskubideak bermatzea izango da, erakundeak eskubideok berez bermatu ezin dituenean.<sup>9</sup>*

Hortaz, ikus daitekeen moduan, Osakidetzak bigarren mailako balioa eman zion itzulpengintzari erabilera normalizatzeko lehenengo planean (2003-2011).

Bigarren planean joera berari eutsi zion:

*Itzultzea, berez, ez da helburua, bitartekoa baizik, haren bidez hizkuntza-eskubideak bermatzen, testuen kalitatea ziurtatzen eta profesionalen eta erabiltzaileen arteko komunikazioa errazten delako. Hala ere, Osakidetzako euskararen normalizazio-prozesuan gaur egun itzulpenek daukaten garrantzia ikusita, aintzat hartu beharreko alderdia izango da hurrengo urteetako hizkuntza-plangintzan eta baliabideen hornikuntzan. Hori dela eta, zerbitzu-erakunde bakoitzak behar beste baliabide jarri behar ditu bere itzulpen-beharrei aurre egiteko.<sup>10</sup>*

Testu berean itzulpengintzari buruzko gai gehiago ere azaltzen dira, besteak beste, diziplina horretako langileak koordinatzeari buruz, eta estilo eta terminologia zaintzeari buruz.

---

<sup>9</sup> Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua ente publikoaren Administrazio Kontseiluaren erabakia, Euskara Plana onartzen duena

<sup>10</sup> Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 28. zk.

Hala, Osakidetzak hasiera-hasieratik azaldu zuen hizkuntzaren normalizaziorako planetan itzulpengintzari eman nahi zion kutsua eta garrantzia; alegia, euskara normalizatzeko planetan itzulpengintza baliabide lagungarria izango dela, dagokion garrantzia eman behar zaiola baina helburua euskaraz (ere) lan egitea dela.

Horrez gain, itzulpengintzari eta interpretazioari lotuta, Osakidetzak badauka gaixo atzerritarrei hizkuntza askotako interpretazio zerbitzua eskaintzeko programa bat. Hiru linea dituen telefono bidez eskaintzen da, alegia zerbitzua hiru hiztunen arteko telefono bidezko elkarrizketa batean datza; linea horietako baten, telefonoaren beste aldean gaixoa egoten da, beste batean erizaina edo medikua, eta azkenengo telefonoaren beste aldean, berriz, interpretea. Hala, gaixoak edo erietxean dagoen pertsonak kasuan kasuko hizkuntzan azaltzen du sentitzen duena, dituen sintomak edo sortu zaion arazoa; telefono bidez, interpreteak mezu hori itzultzen du sendagileak edo erizainak uler dezan, eta, hala, gaixoari bere hizkuntzan hitz egiteko aukera ematen zaio.



Erabiltzaile mailari dagokionez, sistemak oso ongi funtzionatzen du, eta dagoeneko Osakidetzaren zentro guztietan dago erabilgarri hainbat hizkuntzatan. Hala ere, ekimen horretan euskarari eman zaion rola berraztertu egin beharko litzateke; izan ere, prentsan eta komunikabideetan azaldutakoaren arabera, zerbitzu horretan euskarak atzerriko beste hizkuntzen trataera bera jaso du; alegia, ospitaleratutako pertsona batek osasun arloko profesional batekin euskaraz hitz egin nahi badu, telefono bidezko interpretazio zerbitzua erabil dezake, baina interpretazio-lan guztiak gaztelaniara egingo dira. Alegia, gaztelania da interpretazio kontratu horretako hizkuntza nagusia. Kontuan hartu behar da konbinazio batzuetarako euskara interpretea lortzea agian zailagoa izan daitekeela, baina, nolana ere, osasun arloko profesionalek euskaraz hitz egin nahi eta ahal badute, esperientzia honen barruan ez daukate horretarako aukerarik, ez baita aurrez ikusi portuges-euskara edota italiara-euskara (bi hizkuntza bikote aipatzearen) bezalako konbinaziorik, horretarako interprete gaituak dauden arren.

Euskara normalizatuko bada, ezinbestekoa da horrelako ekimenetan ere euskarak gutxienez gaztelaniaren trataera baliokidea jasotzea. Aurrerago ikusiko dugun moduan, interpretazioaren arloan oraindik asko dago egiteko euskarari dagokionez.

## **Arlo juridikoa**

Edozein hizkuntzaren normalizazioan bezalaxe, euskararen kasuan ere justiziaren arloak garrantzia berezia du; izan ere, legeek arautzen dute gizartea eta maila guztietako arazoak eta gatazkak konpontzeko balio dute. Egoera puntualak ebazteaz gain, gerora erabiliko diren bestelako neurriak ere ezartzen ditu arlo juridikoak, eta egoeraren arabera eragin izugarria izan dezake zenbait herritarren bizitzetan.

Euskal Herriaren kasuan, gainera, arlo juridikoa marko desberdinetan banatuta dago, Administrazio organo ugari araututa baitago. Euskararen eremuan marko eta aginte eskumendun desberdinak izateaz gain, historiari erreparatuz gero ere une oso desberdinak bizi izan ditu euskarak esparru horretan. Hala, arlo juridikoko terminologian geratu diren zenbait terminori esker, gaur egun badakigu garai batean arlo honetan ahoz euskara erabiltzen zela. Izan ere, gaztelaniaz ere erabiltzen diren zenbait kontzepturen izenak euskaratik datoz, eta horrek frogatzen du ahoz euskara erabiltzen zutela horrelako arlo juridikoko gaiak ahoz lantzeko. Edukia idatziz jasotzeari dagokionez, berriz, dena beti erdaratan idatzi da Euskal Herrian, eta gerora itzuli da euskarara. Hortaz, arlo juridikoak ere lotura estua izan du itzulpengintzarekin Euskal Herrian, eta, arlo juridikoko itzulpen jardunak, halaber, eragina izan du euskara hizkuntzan.

Eragin horien artean daude, hainbat autorek nabarmendu duenez,<sup>11</sup> testu juridikoak euskarara itzultzen hasi zirenean euskarazko lege testurik ez izatea, eta horren ondorioz nahasmena sortu zen garai bateko itzultzaileengan. Euskarazko tradizio juridiko idatzirik ez izateak, diskurtso eta erreferente falta hark zaildu egin zuen itzulpen lana, eta garai hartako itzulpenetan hainbat molde, estilo eta egitura desberdin erabili ziren, estandarizatu gabeak. Horrek kalte egin zion euskara modu erregulatuan esparru horretara hedatzeari. Izan ere, gogoratu behar da Euskal Herriko testu juridiko historikoak ez zirela euskaraz idatzi, baizik eta erdaraz.

Eredu faltak ekarritako kalteaz gain, itzulpen jardunean beti gaztelaniatik itzultzeak ere eragin negatiboa ekarri dio (eta ekartzen dio) euskarari. Horren ondorioz sortu dira, besteak beste, kalko linguistikoak.

---

<sup>11</sup> “Hutsunerik ikusten badut, esatea zilegi bazait, euskaraz sortutako diskurtso juridiko baten falta dela esango nuke. Testu juridikoa ia beti itzulpena izatea (eta beti gaztelaniatik itzulpena, gainera) saihestu ezinezko errealitatea da.” Eneko Oregi

Halere, arlo honetan lan izugarria egin da, eta emaitzak ere ikusi dira. Izan ere, egindako lanari esker eragin estandarizatzailea izan du gerora itzulpengintzak hizkuntzan, hainbat termino finkatzen eta hedatzen lagundu eta laguntzen baitu. Corpusean oinarrituz normalizazioa aztertu duten lanak horren adierazgarri dira. Horrenbestez, hizkuntzaren estandarizazioan justiziaren arloak garrantzia nabarmena duela esan behar da.

Horri esker, zuzenbidearen arloko testuak itzultzerakoan arlo horretako profesionalei lanerako hainbat tresna euskaraz izateko aukera eskaini zaizkie. Hala, nabarmentzekoa da hainbat lege testu euskaraz izateak erraztu egiten diela profesionalei lana ere euskaraz egitea. Ahalegin horretan aritutakoak hainbat dira; besteak beste, testuak euskaraz izateak daukan garrantziaren jakitun, IZOk aspaldi ekin zion Administrazioarentzat eta herritarrentzat oinarritzkoak dien testu juridikoak itzultzeari. Horretarako hainbat aliantza sortu izan dira, esaterako Deustuko Unibertsitatearekin.

Hala, gaur egun esan daiteke badagoela itzulpengintza juridikorako molde homogeen xamarra, eta arlo horretako lanak bidea egin duela.<sup>12</sup>

Zuzenbidearen arloan, gainera, beste ezaugarri garrantzitsu bat aipatu behar da, hain zuzen ere hizkuntza hitz egiten den eremuan aplikatzen den ordenamendu juridikoarena. Kanadan, esaterako, bi hizkuntza ofizial daude, ingelesa eta frantsesa, eta elebitasuna modu erreal eta praktikoa aplikatzen du sorreratik bertatik (1867). Hizkuntza ofizial horietako bakoitzak tradizio eta ordenamendu juridiko desberdina dauka, kodegintzaren tradizio frantsesa eta Common Law sisteman oinarritutako tradizio ingelesa, alegia. Bi tradizio juridikoak eremu eta gobernu organo berberetan daude, baina biak dira balagarriak eta estatus berdina daukate. Hala, itzulpena erabili beharrean, Kanadan lege federalak idazteko korredakzio sistema erabiltzen dute 1972. urtetik. Sistema horren bitartez, bi bertsioak (ingelesaz idatzitakoa eta frantsesez idatzitakoa) aldi berean idazten dira, eta bi testuak idazteko arduradun bat izendatzen da hizkuntza bakoitzerako. Bakoitzak testua bere hizkuntzan idatzi eta gero, testuok elkarri moldatu eta itzultzaile juridiko eta autoreek berrikusten dituzte. Jatorrizko bi bertsio sortzen dira horrela, itzulpena jo beharrik gabe. Alegia, prozesu legegilea tradizio juridiko desberdineko bi hizkuntzetan egiten da, aldi berean eta balio berdinarekin.

Kanadaz gain Belgikan ere erabiltzen da, baita Espainian ere, *gutxienez Alacanteko eta Ourenseko diputazioek bultzatzen dute idazketa elebiduna, ez araugintzarako, baizik eta administrazio lanerako*.<sup>13</sup> Hala, Eusko Jaurlaritzak ere badu korredakzio sistema bat martxan, lehenago aipatu bezala. Gainera, V.

---

<sup>12</sup> “Azken hogeita hamar urteetan euskarazko itzulpengintza juridikoak sustrai sakonak egin ditu: unibertsitateko eskuliburuak euskaraz, epaitegietako inprimaki asko... Euskarak ere hizkuntza gutxitu askok bezalaxe itzulpena izan du aurreratzeko eta sendotzeko bidea. Euskal hizkera juridikoa landu nahiz bateratzeko eta terminologia juridikoa finkatzeko. Esan daiteke gaur egun badugula itzulpengintza juridikorako molde homogeen xamarra”. Ioana Bujanda.

<sup>13</sup> Eneko Oregi eta Zelai Nikolas: [http://www.erabili.eus/zer\\_berri/muinetik/1264492222/#ref3](http://www.erabili.eus/zer_berri/muinetik/1264492222/#ref3)



Plangintzan xedatutakoari jarraiki, pentsatzekoa da hurrengo urteetan jarraituko den bidea horixe izango dela.

Euskarri idatziak prestatze hutsarekin, baina, euskara ez da normalizatuko. Euskara erabat normalizatzeko arlo horretako giza baliabideak ere jomugan jarri behar dira, eta langileek euskaraz lan egitea lortu behar da. Badira urte batzuk Katalunian hausnarketa hori egin zutenetik, eta helburu hori lortzeko baliabideak martxan jarri zituztenetik. Izan ere, 1990. urtean (duela hogeita bost urte, denbora tarte aipagarria) Platja d’Aron egindako Arlo Juridikoa eta Hizkuntza Normalizazioa Jardunaldietan (*Jornadas Ámbito Jurídico y Normalización Lingüística*) lortutako ondorioetako bat, hain zuzen ere, itzulpen jardunak aldi baterako neurria izan beharra izan zen, harik eta langileak zuzenean katalanez lan egiteko gai izan arte.<sup>14</sup>

Hala, hurrengo urratsa langileak eta horretan inplikaturako profesional guztiak euskaraz lan egiteko nahikoa gaitasun eskuratzea izango litzateke. Multzorretan Justizia Saileko langileak ez ezik (Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, estatuko funtzionarioak dira), epaileak, abokatuak, auzitegi-tako langileak, espetxe-tako langileak, legeak idazten dituztenak edota legebiltzarkideak ere sartu beharko lirateke. Horrek lotura dauka, argi dagoenez, lehenago aipaturako korredakzioaren sistemarekin, korredakzioa izan daitekeelako hainbat profesional euskarara erakartzeko bide-tako bat.

Marta Xirinachsek eremu horretan Katalunian aplikaturako esperientzia baten berri eman zuen:

*En 1991 la Generalitat llevo a cabo un programa experimental de normalización lingüística en 10 juzgados. Puso a disposición de estos juzgados un asesor lingüístico encargado entre otras funciones de la traducción documentos. Los resultados inmediatos fueron en términos generales satisfactorios. Pero de esta experiencia piloto también quedó claro que la figura del asesor encargado de la traducción de los documentos y única persona que usaba el catalán no fomentaba en modo alguno la autonomía lingüística de los profesionales del sector y creaba una situación de dependencia. Esta figura fue sustituida por la del dinamizador que centra su actividad en la enseñanza en actuaciones que tienen por objetivo potenciar el uso de la lengua catalana.*

Hala, hainbat arlotan nabarmendu izan den moduan, justiziaren arloan ere trantsizio fase bat garatu behar da; testu idatziei dagokienez, testuak gaztelaniaz soilik idaztetik ele bietan idaztera, eta ahozko hizkuntza soilik gaztelania

---

<sup>14</sup> “*Jornadas Ámbito Jurídico y Normalización Lingüística que tuvieron lugar en 1990 en Platja d’Aro. En las conclusiones de las jornadas del Ámbito Jurídico en las que participaron como ponentes profesionales de los diferentes colectivos aparecen propuestas que se concretan en actividades de traducción: traducción entendida como medida transitoria mientras el personal se forma para poder usar directamente la lengua catalana o traducción como medida para disponer de los textos necesarios en catalana*” Marta Xirinachs.

izatetik euskara eta gaztelania izatea; oro har esanda, lan hizkuntza bakarra izan beharrean bi lan hizkuntza izatea da helburua.

Bestetik, justizia arloan interpretazio lanak ere egiten dira. Izan ere, auzitegi eta epaiketetan maiz behar izaten dira interpretazio lanak hainbat hizkuntza konbinazioarekin, eta horretaz Justizia Saila arduratzen da. Horren haritik, hainbat kontraturen deialdia egin da azken hamar urteetan, organo judizialeterako itzulpengintza eta interpretazio zerbitzuak kontratatzeko. Lehen iragarkia 2004ko azaroaren 4ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (211. zk) aldizkarian argitaratu zen, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden organo judizialen beharrei erantzuteko epaiketetan aritzeko itzulpen eta interpretazio zerbitzuen administrazio-kontratua esleitzeko iragarkia plazaratu baitzen. Iragarki hartan azaldutako aurrekontua guztira hirurehun eta berrogeita bat mila eta bostehun (341.500) eurokoa izan zen, hiru lotetan banatuta. Lehenengo lotea Arabako lurralde historikoan dauden organo judizialentzako itzulpen eta interpretazio zerbitzuari zegokion, bigarrena Gipuzkoakoari eta hirugarrena Bizkaiko lurralde historikoari. Ondoren, bada beste deialdi bat 2008ko azaroaren hogeita zortziko data zuena, eta beste bat 2012ko ekainaren 9ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (112. zenbakia) argitaratu zena.

Edonola ere, aipatutako iragarkietan euskarak nolako tratamendua jaso duen aztertu behar da, Osakidetzaren interpretazio jardunaren gainean azaldutakoaren haritik; pentsatzekoa da interpretazio lan gehienak beste hizkuntza batzuen konbinazioarekin egin izan direla, euskarari gaztelaniaren pareko trataera eman gabe. Justizia Saileko langileek euskara maila kontuan izanda betiere, lehenago Osakidetzaren kasuan esandakoa kasu honetan ere aplikagarria da, alegia euskara normalizatzeko Administrazioak esparru guztietara eraman behar duela, eta horrelako kontratuetan behintzat gaztelaniak jasotzen duen mailaren baliokidea behar duela.

Eusko Jaurlaritza bera eta mendeko hainbat entitate aipatu ondoren, jarraian probintzia mailako erakunde bat izango dugu hizpide, Gipuzkoako Foru Aldundia, hain zuzen ere.

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Gipuzkoako Foru Aldundiak arlo honetan egindako lana bereziki nabarmena da.

Hala, euskara normalizatzeari dagokionez, Euskararen Erabilera Normalizatzeko laugarren planean (urtarrilaren 27ko 3/2009 Foru Dekretu bidez onartutakoa), 2008-2012 aldiari dagokiona, esaterako, Gipuzkoako Foru Aldundiak hainbat neurri plazaratu zituen euskara sustatzeko eta bultzatzeko. Neurri horietako batzuk euskara lehenesten dute beste plan askok ez bezala.

Horietako bat, besteak beste, langileen lan hizkuntza euskara izateari buruzkoa zen, eta horri garrantzia berezia eman zaio planean; hala, hirugarren edo laugarren hizkuntza eskakizuna daukaten Aldundiko langileek jasoko beharreko laneko prestakuntza euskaraz irakatsiko da:

*6.5 artikulua. Gipuzkoako Foru Aldundiko baliabideak arrazionalizatzeko aldera, lanpostuan derrigorrezko hizkuntza eskakizuna izanik, hirugarren edo laugarren hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duten langileek euskaraz jasoko dituzte Aldundiko Prestakuntza Plan Orokorreko ikastaroak 2009tik aurrera. Horretarako, beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu Lehendakarietzako eta Foru Administrazioko Departamentuak. Era berean, urteko lehen hilabetean, Lehendakarietzako eta Foru Administrazioko Departamentuak txosten idatzi bat aurkeztuko dio Kultura eta Euskara Departamentuari puntu honen betetze mailari buruz.*

Horrez gain, plan horretan lan giroko hizkuntzari ere berebiziko garrantzia eman zitzaion; lehenago ere jorratu zuen Aldundiak, eta ordurako arlo honetako zenbait ekimen martxan zeuden.

Aldundiaren barne funtzionamenduan ez ezik, kanpora begira egiteko komunikazioetan ere euskara lehenetsi zen:

*13. artikulua Gipuzkoako Foru Aldundiak sortzen dituen kanpainak, publizitate mezu eta gisakoak euskaraz sortuko dira, gaztelaniaz sortutakoak itzulpen soil eta kaxkarrak izan ez daitezke*

Hala, bukatu berri den legegintzaldian prentsaurrekoak, esaterako, euskaraz eman ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak, eta aldi berean gaztelaniazko interpretazio zerbitzua eskaini da.

Kanpora begira, halaber, kontratazio publikoen deialdien oinarrietan hizkuntza eskakizunak sartzea ere aurreikusi zuen Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskararen Erabilera Normalizatzeko laugarren planak. Hala, GI-632 errepidean Antzuola-Bergara zatia egiteko kontratuaren baldintzen artean jarri zuten obrako zuzendariari laguntza teknikoa emateko taldeko bi kidek gutxienez EGA izan behar zutela.

Aldi hura bukatuta, 2013-2017 aldirako beste erabilera plan bat onartu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak 2014ko abenduaren 22an (214ko abenduaren 31ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 249. alean), *Euskararen erabilera normalizatzeko plana Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta bere organismo autonomoen jardura esparruan 2013-2017 aldirako izenburupean*. Plan honen seigarren artikuluko bigarren atalean hauxe xedatu zen:

*Administrazio atal bakoitzean edo idazkaritza teknikoetan dauden bitartekoak erabilia ziurtatu beharko da dokumentu elebidunak sortzea, Aldundiaren itzulpen zerbitzuetara jo aurretik.*

Hala, itzulpengintzari dagokionez, dokumentu elebidunak sortzea lehenesten da Aldundian, itzulpen zerbitzuetara jo aurretik.

Euskal gizartearen zenbait sektorek polemika sortu dute Gipuzkoako Aldundiko euskararen normalizaziorako planengatik, gaztelaniaren ofizialtasuna edo gaztelaniaz hitz egiteko herritarren eskubidea urratzen dituztelakoan; hala, Espainiak EAEn duen ordezkari Carlos Urquijok zenbait helegite aurkeztu ditu auzitegietan gai hori lantzeko. Dena den, zenbait sektorek euskararen normalizazioari jartzen dizkieten eragozpen eta erresistentziek hausnarketa orokorragoa egitea merezi du, eta betebeharrak hori ez dagokio lan honi.

## NAFARROA

Nafarroan, euskararen estatus ofiziala 1986ko abenduaren 15ean onartutako Euskararen Foru Legearen bitartez arautu zuen; hala, harrezkero, euskararen ofizialtasuna Nafarroan zonifikatuta dago, hau da, Nafarroa hiru eremutan banatuta dago, eremu euskalduna, eremu mistoa eta eremu ez euskalduna. Hala, euskara eremu euskaldunean baino ez da koofiziala; eremu mistoan euskara sustatzeko zenbait neurri aurreikusten dira, eta eremu ez euskaldunean bat ere ez. Ondoren, beste arau testu batzuk ere eman ziren, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantillako zein lanpostuetarako jakin behar den euskara agertu zuen 203/2011 Foru Dekretua, edota Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautu zuen 29/2003 Foru Dekretua. Iaz, otsailaren 24ko 4/2015 Legearen bitartez, aldaketa bat txertatu zen aipatutako Euskararen Legean; aldaketa hezkuntzaren arloari zegokion.

Horrez gain, Euskarabidea edo Euskararen Nafar Institutua da euskara sustatzeko Nafarroako Gobernuaren erakunde aholkularia, eta, Euskarabidea Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren estatutuak onesten dituen 133/2011 Foru Dekretuaren arabera, “*Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legean onarturiko eskubideak eraginkorrak egite aldera esleitzen zaizkion tresnak kudeatzeko eta euskararen erabilera sustatzeko neurriak ezartzeko*” erakundea da.

Gaur egun, Nafarroako Gobernuak badu itzulpengintza zerbitzu ofiziala, eta Euskarabideak zenbait ekimen bideratzen ditu euskara normalizatzeari dagokionez; oro har, halere, Nafarroako Gobernuak euskara sustatzearen aurkako jarrera agertu du, besteak beste, EiTB taldearen euskarazko emisioak

Iruñean eskaintzea eragotziz edota euskaraz aritzen den Euskalerrria Irratia emititzeko lizentziarik gabe utziz.

Aurrera begira, 2015eko maiatzeko hauteskondeek Nafarroako Gobernura eta Iruñeko Udalera ekarri duten aldaketek euskarari dagokionez zein eragin izango duten ikusteke dago.

## IPARRALDEA

Euskal Herriaren iparraldea Pirinio Atlantikoak izena duen departamentu baten barruan dago Frantziar ordenamenduaren barruan. Frantziar estatuan euskarak ez du ofizialtasunik, eta, hortaz, euskarak ez du (ia) presentziarik Iparraldeko Administrazioaren erakundeetan. Zenbait udalerritan horretarako ekimen aitzindari batzuk abiarazi dituzte; aurrerago jorratuko ditugu.

Erakunde publikoak alde batera utzita, halere, herritarrek hainbat egitasmo abiarazi dituzte euskararen ofizialtasuna aldarrikatzeko; horien guztien emaitza gisa, 2004. urtean Euskararen Erakunde Publikoa sortu zen, euskal kultura zaintzeko eta zabaltzeko. Hainbat erakunde publikoren laguntza du.

## UDALERRIAK

Herritarrengandik gertuen dauden Administrazio erakundeak udalak dira; herritarrek gertuago sentitzen dute udala beste administrazio organo batzuk baino, eta maizago jotzen dute udalera, edozein izapide egiteko. Gertuagokoa izan arren, beste Administrazio organo batzuek daukaten prestigioari eutsi diote neurri handi batean, herritar askoren pertzepzioan agintea irudikatzen baitu udalak. Bestalde, udalek, beste edozein erakundek bezalaxe, herritarren hizkuntza eskubideak bermatu behar dituzte, eta horretarako betebeharrak legalak ere aplikatzen zaizkie. Horrez gain, udalek badute nahikoa botere eta eskumen udalerrri jakin baten ezaugarriei espresuki egokitutako hainbat egitasmo abiarazteko eta aplikatzeko, tartean euskarari dagozkion planak ere.

Eusko Jaurlaritza eratu aurretik, 1979. urtean, udal hauteskondeak izan ziren EAEn eta Nafarroan, eta horren ondorioz Hegoaldeko udalak eratu ziren. Harrezkero zenbait entitate euskararen alde lanean ari dira. Hainbat herritan horretarako makina bat egitasmo sortu dira, eta batzuk oso interesgarriak eta emankorrak.

Hala, 80ko hamarkadan hainbat udaletan euskara zerbitzuak sortu ziren, eta udal askotako euskara zerbitzuetan euskara teknikarien profilak sortu ziren; zenbait udaletan itzultzailearen postua ere garai bertsuan sortu zen, baina ez

teknikarien kopuru berean. Horren haritik, askotan pertsona berdinak egin izan ditu euskara teknikari eta itzultzaile lanak.

Udal askotan egindako lana eta lortutako emaitzak izugarriak izan dira. Urte luzez gaztelaniaz funtzionatu duten hainbat udal euskaraz funtzionatzen hasi dira denbora laburrean, eta horrela jarraitzen dute gaur egun ere. Hala, borondatea izanez gero lan hizkuntza aldatzea posible dela frogatu da. Horrez gain, herritarrei kalitatezko zerbitzua eskainiz gero hizkuntzak prestigioa lortzen du, eta horrek erabileran ere eragin positiboa dakar.

Kasuistika oso zabala da EAEko udalerrietan; zenbait udalerritan, Bermeon esaterako, udaleko lan hizkuntza euskara da, euskaraz hitz eta lan egiten da udalean eta, ondoren, aktak, txostenak eta bestelakoak erdaratu egiten dira.

Hala ere, gaur egun oraindik, herri askotan itzulpen zerbitzuak kontratatzeko lehiaketak egiten dira eta, hala, kanpoko enpresa batek hartzen du ardura hori. Horrelakoetan, hizkuntza konbinazioa ia beti gaztelaniatik euskararakoa da (eta ez alderantziz edo beste hizkuntza batzuekin); horrek esan nahi du udal askotan gaztelania dela lan hizkuntza, eta, ondoren testuak euskarara itzultzen direla. Hau da, herritarrek euskaraz jarduteko daukaten eskubidea bermatzeko itzulpenak egiten dira; bestela esanda, Administrazioarekin euskaraz jarduteko eskubidea itzulpenak egitean datza udal askoren kasuan. Hala, udal askotan itzultzailea euskararen uharte gisa irudika daiteke, gaztelaniaz funtzionatzen duen udal bateko euskararen uharte<sup>15</sup>.

Horrek, berriz ere, lehenago aipatutako arazora eramaten gaitu, alegia testuak euskaratzen direla herritarren eskubideak bermatzeko, baina ahalegin horrek kalte egiten diola euskararen normalizazioari, eta benetan ez zaiola langileak euskalduntzeko ahaleginari ekiten.

## **Nafarroa**

Nafarroaren kasuan, ikusi dugun bezala, egoera ez da homoginoa erkidegoaren lurralde osoan. Are gehiago, guztiz bestelakoak dira Nafarroa iparraldeko eta hegoaldeko udalerrien egoerak euskarari dagokionez, baina hizkuntza politika aniztasun horrek lurraldea desorekatzen du eta normalizazio prozesua zaildu. Nafarroan lege bitarteko zatiketak kalte handia egin dio prozesuari. Ez da ahaztu behar Nafarroako Gobernuaren politika orokorra, orain arte bederen, ez dela izan euskara sustatzearen aldekoa.

Nafarroako Gobernuak 1990. urtean hasi zen udalei laguntza eta babesa ematen euskararen normalizazioari dagokionez, betiere eremu mistoko eta eremu euskalduneko udalei. Horren haritik, udal askotan euskara zerbitzuak daude, eta bada, gainera, Nafarroako Udaletako Euskara Teknikarien Sarea (NUETS). Baina egoera oso txarra da, baliabideak oso gutxi dira eta urrituz

---

<sup>15</sup> Iñaki Arruti, HIZNETeko materiala

doaz; 2002an, esaterako, Unibertsitateen eta Hizkuntza Politikaren Zuzendaritza Nagusiak 740.851,91 euro bideratu zituen toki entitateekin udalerrien esparruan euskara normalizatzeko duen hitzarmenerako, 18 euskara zerbitzuren artean banatzeko; bost urte geroago, 2007an, kantitate hori 394.366 eurotara jaitsia zen, 22 zerbitzuren artean banatzeko.<sup>16</sup> Giza baliabideak ere gero eta urriagoak dira, eta askotan euskara teknikariak bestelako lanak egin behar izaten ditu, itzultzaile lanak, administrari lanak...

Itzulpengintzari dagokionez, badira zenbait itzultzaile Nafarroako erakunde publikoetan, baina ez euskara teknikariak bezainbeste. Gainera, esan bezala, askotan betebeharrak nahastu egiten dira eta teknikariek itzultzaile lanak egin behar izaten dituzte.

Nafarroan, esan bezala, oso egoera desberdinak daude udalerrri batetik bestera hizkuntzaren normalizazioari eta itzulpen jardunari dagokionez. Hala, baliteke datozen urteetan bestelako esperientziak izatea, 2015eko maiatzaren udal hauteskundeen ondoren egoera irauli egin daitekeelako leku askotan eta baliteke horrek eragina izatea arlo honetan ere.

## **Iparraldea**

Esan dugun bezala, euskarak ez du ofizialtasunik Frantzian eta, hortaz, Iparraldean ere ez. Udalek ezin dute, horrenbestez, legalki behintzat, horretan hasi, baina, hala ere, zenbait esperientzia martxan jarri dira, esaterako Kontseiluaren eskutik, Bai Euskarari Akordioa Herrietan (BEAH) hedatu baitzuen Sarako Udalarekin.

Horrez gain, Euskal Konfederazioak (Ipar Euskal Herrian euskararen alde lanean ari diren elkarten konfederazioa), UEMAREN laguntzarekin, herriko etxeak laguntzen ditu, hauek helburuak finka ditzaten eta neurri konkretuak har ditzaten, ondoko urratsak jarraituz.

Lehen esan bezala, 2004an, berriz, Euskararen Erakunde Publikoa (EEP) sortu zen, euskararen presentzia areagotzeko hainbat esparrutan, baita udaletan ere. Ondoren, Konfederazioak eta EEPk lortutako akordio bati jarraiki, Iparraldean udaletan euskara normalizatzeko ekimena egitea EEPri zegokiola onartu zuten, eta, hortaz, EEPk hartu du horren gidaritza. Euskararen Erakunde Publikoak euskara teknikarien sarea sortzea erabaki zuen, eta proposamen hori egin zien Ipar Euskal Herriko Herri Elkargo (mankomunitate) guztiei, alegia euskara teknikari bat kontratatzeko proposamena; EEP lanpostu horien gastuen %50 bere gain hartzeko prest agertu zen. Lehenengo euskara teknikaria 2006ko

---

<sup>16</sup> Patri Arburua, in Larrun

urrian hasi zen lanean, Hego Lapurdiko Herri Elkargoaren baitan. Ondoren beste batzuk ere etorri dira, eta, hala, bidea egiten ari dira.

Udaletan ari diren profesionalak euskara teknikariak dira, baina itzulpenak ere egiten dituzte. Hala, bi diziplinak uztartzen dituzte.

## **UEMA**

Udalerriei dagokienez, ezin da UEMA aipatu gabe utzi; UEMA, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea, 1988. urte amaieran jarri zen martxan, Euskal Herrian Euskaraz erakundearen ekimenez. UEMAK berak azaltzen duenez, *“herritarrek arlo guztietan euskaraz bizitzea posible izateko lan egiten du”*. 1991. urtean, 17 udalek sortutako mankomunitatea zen; gaur egun, berriz, 72 udalerrik osatzen dute, denak Euskal Herriko Hegoaldekoak.


Ia 30 urteko ibilbidearen ondoren izaera nabarmena du UEMAK, gaitasun egiaztatua eta profesionaltasun bermatua. Udalerri mailan izugarritzko laguntza eskaintzen du eta etengabe aritzen da euskara sustatzeko eta normalizatzeko ahaleginean, esparru guztietan.

Berriki, bestalde, beste gai baten ondorioz bereganatu du arreta UEMAK; izan ere, Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkariak, Carlos Urquijok, epaitegietara eraman ditu UEMA barruko hainbat udalerri, aktak euskaraz helarazteagatik, baita UEMAn sartzeko herri batzuen erabakiak ere. Horrelako erabakiak, UEMARI ez ezik euskararen normalizazioari ere kalte egiten diote. Ezin da ahaztu euskarari dagokionez erabakiak hartzerakoan akordio zabal eta anitzak beharrezkoak direla.

## **Kontseiluaren azterketa**

Kontseiluak Udaletako Hizkuntza Politikaren Azterketa egin du dagoeneko hiru aldiz, eta berriki 2014-2015 aldiari dagokiona argitaratu du. Balorazio horietan udalek emandako urratsak, urrats horien eraginkortasuna eta lurraldeen araberako emaitzak aztertzen dituzte. Informazio paregabea eskaintzen du txostenak udal mailako hizkuntza politikaren berri izateko.





Iturria: Kontseilua

Aipatutako 2014-2015 aldiari dagokiona azterketan, Kontseiluak 119 udalerrri aztertu ditu, eta egoera orokorraren ikuspegia eskaintzen digu. Hala, Iparraldean alde batera utzita, EAE eta Nafarroa Garaia artean alde handiak daude, baita Nafarroa barruan ere (iparraldean eta hegoaldean). Ondorio orokor gisa, Kontseiluak hainbat gai azaldu zituen; batetik, hartzen diren neurri gehienak sustatzeko neurriak dira, eta ez neurri betearazleak. Horrez gain, zenbat eta euskaldun tasa handiagoa orduan eta jarrera ausartagoak aplikatzen dira. Bereziki kezagarria da, bestalde, udal gehienek ez dutela neurririk hartzen arlo sozioekonomikoa euskalduntzeko, eta hartu dituztenen kasuan itzulpenak egitera edo laguntza neurriak ematera mugatu direla.

Kontseiluak egindako txostenak hainbat ideia ematen dizkigu udalerrien politika eta egoera zertan den jakiteko. Zalantzarik gabe, udalerririk ere gertutik zaindu behar dira eta hizkuntza normalizazioa eta itzulpengintza zuzen kudeatu eta aplikatu behar dira.

Hala, erakunde publikoen atal hau bukatutzat emango dugu; jarraian, itzulpenaren arazoak identifikatu eta aurrera begira jarriko gara.

## ITZULPENAK ERE ARAZOAK DITU

Oro har, euskarazko itzulpengintzak eragin positiboa izan du hizkuntzaren normalizazioan. Beste hizkuntza batzuetan gertatu den bezala, eragin estandarizatzailea izan du, euskararen erabilera beste esparru batzuetara eramanez du eta duela urte batzuk pentsaezinak ziren hainbat helburu erruz lortu ditu.

Hala ere, itzulpenak beti hizkuntza beretik egiteak (gaztelania, gehienetan) eragin kaltegarria ere izan du euskararengan eta euskararen normalizazioan. Batetik, esan behar da itzulpenetan beti jatorrizko hizkuntza bera izateak interferentziak eta kalko okerrak garatzean eragin duela; horrez gain, hasierako itzulpenen kalitatea ere maiz zalantzan jarri izan da. Horrenbestez, eragin positibo nabarmena izan badu ere, itzulpengintzak ere arazoak ditu hizkuntzari berari dagokionez.

Goragoko mailan ere badu eragina itzulpengintzak; izan ere, testuak etengabe euskarara itzultzeak, nolabait esatearren, bigarren mailako ofizialtasuna ematen dio euskarari; alegia, euskararen normalizazioa testuak euskarara itzultzeraz mugatzen da, eta ez da euskara lanerako hizkuntza gisa finkatzen eta hedatzen. Horixe da, hain zuzen ere, hainbat adituk azken boladan egin duten ohartarazpen nabarmena: euskararen normalizazioa edo herritarren hizkuntza eskubideen bermea ezin dela mugatu testuak euskaratzera.

Orain arte egindako lan ona aitortzearekin eta aprobetxatzearekin batera, itzulpengintza eta hizkuntzaren normalizazioaren arteko lotura birpentsatzeko eta birplanteatzeko unea iritsi da.

## AURRERA BEGIRA

Aurrera begira etorriko diren erronka berriei erreparatzea dagokigu orain. Aurrerantzean, euskararen normalizazioak hainbat erronka berri eta ezezagun izango ditu, eta balizko arazoei heldu aurretik hausnarketa egitea komeni da.

Aurrera begira jarri aurretik, hala ere, ezinbestekoa da orain arte arlo honetan lan egin duten profesional guztien ahalegina eta dedikazioa aintzatestea, eskertzea eta saritzea. Azken hamarkadetan zenbait belaunalditako langileek lan izugarria egin dute euskararen normalizazioan eta itzulpengintzan, askotan horretarako prestakuntza egokirik izan gabe baina gehienetan bokazioz, errespetuz eta profesionaltasunez. Kasu horietako askotan, gainera, elkarlanean eta inguruko profesionalekin sarean lan eginez. Lan horri esker, askok eta askok egin duten esfortzu eta ahalegin horri esker euskara beste eremu batzuetara zabaldu da, estandarizatu egin da eta prestigioa lortu du, eta egindako lan guztiari ez zaio eman merezi duen zabalkunde eta oihartzuna. Beste ezer baino lehen, hortaz, egindako lana aintzatestea, eskertzea eta zoriontzeari dagokio Administrazioari zein euskalgintzan sektore honetan lanean dagoen orori.

Hizkuntzaren normalizazioaren eta itzulpengintzaren arloan, bestalde, bada zer nabarmendu aurrera begira. Administrazioari dagokionez, oraindik gai honi dagokion seriotasunez heldu ez dioten erakundeek lehenbailehen hasi behar dute

euskara barneratzen eta erabiltzen, eta beharrezko itzulpen eta interpretazio zerbitzuak taxuz antolatzen eta eskatzen. Hala, esan bezala, orain arte euskara erabat baztertu edo txokoratu duten komunitateetan Administrazioa euskara erabiltzen hasiz gero, euskarak prestigioa lortuko du eta normalizazioaren bidea hartuko du.

## **Ekimen berriak Administrazioan**

EAEko Administrazioari dagokionez, V. Plangintzaldian (2013-2017) Eusko Jaurlaritzak beste alderdi batzuetan jarri du arretagune nagusia. Aurreko plangintzetan arlo teorikoagoak landu ziren, besteak beste, langile funtzionarioen hizkuntza eskakizunak edota errotulazioa. Oraingoan, ostera, esan daiteke jakintza barneratzen aplikatzera jauzi egitearen aldeko apustua egin duela Eusko Jaurlaritzak; horren haritik, lehenago aipatutako hausnarketan oinarrituz, testuak sistematikoki itzultzeraz bidali beharrean langileei beste tresna batzuk ematearen alde egin du Jaurlaritzak, hain zuzen ere idazketa elebiduna eta korredakzioa:

*Testu legal eta arau-bildumak ele bietan argitaratuko dira, eta, horretarako, Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpide hauetako III.2.2 puntuan jorratutako bideak erabiliko dira, alegia: idazketa elebiduna, korredakzioa eta, besterik ezean, itzulpena.*

*Sail bakoitzak eta erakunde autonomiadun bakoitzak zehaztuko du bere erabilera plan berezian itzulpenari eman beharreko tratamendua.*

Aurrerapauso horretan hainbat gai landu beharko dira datozen urteetan, eta Administrazioak ez ezik gizarte osoak egin beharreko ahalegina izango da. Idazketa elebidunaz eta korredakzioaz gain, komenigarria litzateke, alde batetik, langile kualifikatu eta prestatu euskaldunak Administrazio organoetan lanean hastea eta horien lan hizkuntza euskara izatea. Horrela, V. Plangintzaldian aipatutako helburuak lortzeko bidean izango ginateke. Izan ere, zenbait kasutan hizkuntzaren normalizazioa testuak euskaratzera mugatu den moduan, gerta daiteke aurrerantzean euskararen normalizazioa korredakziora eta idazketa elebidunera mugatzea, eta lan hizkuntza, aurrerantzean ere, gaztelania izatea. Hori gertatuko balitz, akats bera errepikatuko genuke. Hori ekiditeko ahozko erabilerari eta hizkuntza ohiturak aldatzeari bultzada ematea funtsezkoa da Administrazioaren organo guztietan, Eusko Jaurlaritzan, horren mendeko erakundeetan, udaletan, eta abar.

Izan ere, Administrazioaren kasuan, oro har, azken urteetan hainbat soziolinguistak esandakoa agerian geratu da, alegia, erakunde publiko askotan euskara normalizatzeko ekimena testuak euskaratzera mugatu dela, eta hori ez da gai honek behar duen ikuspuntu zuzena. Administrazioan euskara lan hizkuntza izatea bultzatu behar da, langileak euskaraz jardutera bultzatu behar dira, ahoz zein idatziz euskara erabil dezaten eta dena gaztelaniaz idatzi eta

euskaratzeko sistematikoki itzultzaileei bidaltzea aldatu egin behar da. Itzulpengintza eta interpretazio zerbitzuak beharrezkoak dira Administrazioan, baina neurrigabe erabiliz gero euskararen normalizazioaren kalterako izan daitezke.

## **Katalunian hartutako bidea**

Arlo berean katalanek hartutako bideari erreparatu behar zaio; izan ere, Marta Xirinachsek dioenez, katalana ofiziala den eremuko testu juridikoak itzultzeaz gain, estatu mailako zenbait testu juridiko ere kasuan kasuko hizkuntza ofizialetara itzuli behar dira, baldin eta eremu horretan eragina izango badu:

*El hecho de que las leyes y las disposiciones del Gobierno Ejecutivo de Cataluña sean editadas prescriptivamente en catalán y español no es un hecho exclusivo. Todas las leyes de normalización lingüística de las diferentes comunidades autónomas con lengua oficial y propia diferente del castellano disponen esta obligatoriedad. En cambio, esta solución no se aplica a las leyes del Estado con repercusión en las comunidades autónomas citadas. La única excepción que siguió el modelo de edición simultánea en las diferentes lenguas oficiales en Estado español fue la Constitución. Esta situación representa un desequilibrio y es necesario corregirla para la plena normalización del catalán, el euskera y el gallego. Es imprescindible que existan las traducciones oficiales de estas leyes a las lenguas acabadas de mencionar, para su desarrollo normal. No podemos esperar que cada vez que sea necesario citar un fragmento de una ley, todas las personas que lo necesiten hagan sus propias traducciones.*

Hala gertatzen da katalanaren kasuan 1990eko hamarkadatik, eta euskararen kasuan, berriz, 2011tik. Hauxe gaineratu zuen autoreak:

*Algunas de las propuestas relacionadas con la traducción son las siguientes: (...) Por su trascendencia doctrinal y emblemática, es necesario que todas las sentencias de Tribunal Superior de Justicia de Cataluña se publiquen oficialmente en lengua catalana. También es conveniente la traducción de sentencias de audiencias provinciales que ponen fin al procedimiento.*

Arlo juridikoaz gain, Marta Xirinachsek beharrezkotzat jotzen du hizkuntza bera erabiltzen duten erkidegoak koordinatzea, hizkuntza horretara itzulitako dokumentuak bateratzeko:

*Como saben, la lengua catalana es la lengua oficial y propia de tres comunidades autónomas en el estado español. Cada vez que un organismo del Estado ha solicitado la traducción al catalán de textos oficiales los técnicos encargados de la traducción en las tres comunidades se han puesto de acuerdo y se ha elaborado y librado una única versión. Son ejemplo de ello los textos del*

*Registro Civil publicados en el BOE en todas las lenguas oficiales de España, la documentación de los procesos electorales, los documentos de la Tesorería de la Seguridad Social, etc.*

*Este mismo modelo de versión única también se ha seguido cuando una empresa con delegaciones o actividad en todo el ámbito lingüístico catalán ha solicitado ayuda para la traducción de sus textos (IBERIA, RENFE, Telefónica, etc.).*

Estatu mailako testu bat katalanera itzuli behar denean, hortaz, horretan parte hartzen duten profesionalak (autonomia erkidego desberdinetakoak) modu koordinatuan egiten dute lan itzulpen bakarra emateko, baita Administrazioa ez beste erakunde batzuen testuak itzultzerakoan ere. Euskarari dagokionez, zalantzarik gabe, itzultzaileen lana errazteko ez ezik, euskararen normalizaziorako ere oso onuragarria izango litzateke. Izan ere, testu beraren hainbat itzulpen desberdin izateak prestigioa kentzen dio euskarari, euskaldunak nahastu egin daitezkeelako horrenbeste testu desberdinen artean, eta euskara laneko hizkuntza gisa aplikatu nahi dutenei ere euskaraz jardutea oztopatzen die.

Horrez gain, Euskal Herriko gainerako Administrazio organoetan, ikusteko dago datozen urteetan Iparraldean hizkuntzaren ofizialtasunak zein bilakaera izango duen. Herri ekimenak horretan lanean ari dira, eta baliteke herritarren ahaleginaren ondorioz emaitza interesgarriak lortzea, baina Frantziar Estatuko gobernuak hainbat auzitan izan duen jarrera ikusita, badirudi euskararen ofizialtasuna Iparraldean oraindik, tamalez, urrun dagoela. Nafarroako Erkidegoan, bestalde, baliteke 2015eko maiatzaren hauteskundeen ondoriozko gobernu osaera berriak aldaketak ekartzea erkidegoa zatitzen duen euskararen legedian eta euskarari dagozkion arauetan oro har.

Udalerrien kasuan, garrantzitsua da orain arte bide honi ekin ez diotenen hautua egin eta euskararen normalizazioari atea zabaltzea. Dagoeneko lanean ari direnei dagokienez, beharrezkoa da, lehenago esan bezala, euskararen normalizazioa testuak euskaratzetik harago joatea, eta funtzionarioen lan hizkuntza euskara izaten hastea. Horretarako, trebakuntza bezalako ekimenak balia daitezke, profesionalen haien lana euskaraz egiteko irakasteko, baita idazketa elebiduna edo korredakzioa bezalako teknikak aplikatzea ere.

Oro har, arlo publikoan politikariei konpromiso sendoagoa eskatu behar zaie euskararen alde. Maiz esandako kontua da euskarak kontsentsu eta babes zabala behar duela; alde batetik, euskara erabiltzeko konpromiso tinkoagoa eskatu behar zaie. Katalunian eta Galizian, esaterako, askoz zabalduago dago kasuan kasuko hizkuntzaren erabilera politikarien artean hemen baino. Hemen ere egoera horretara iristeko aurrerapausoak eman behar dira. Alderdietako edo erakundeetako ordezkariak jendaurrean egiten dituzten agerraldi guztietatik zati bat (demagun, erdia baino apur bat gehiago) euskaraz egiteko betebeharra finkatzea, esaterako, lagungarria izango litzateke. Ahozko jarduna euskaraz

izateko eskaeraz gain, bestetik, euskara Administrazioan tinkoago babesteko ere eskatu behar zaie politikariei. Zenbait udalek aktak euskara hutsez bidaltzeagatik jasotako helegiteetan presentzia nabarmenagoa izan behar du Administrazioak (dela Eusko Jaurlaritza, UEMAk eskatu bezala, dela kasuan kasuko aldundia), baita euskara erabiltzeko ezintasunagatik kexatu diren herritarren babesean ere. Euskara agenda politikoaren lehen lerroan jarri behar dute eta horren arabera jokatu behar dute. Horrekin batera, euskararen arloko ika-mika dinamika gelditu egin behar dute. Euskara beste esparru batzuetara zabaltzea funtsezko aurrerapausoa da euskararen normalizazioan eta ezin da gaztelaniaren kontrako eraso gisa hartu; hala interpretatzen dutenen jokoak geldiarazi egin behar da.

## **Hizkuntza konbinazioa euskararen itzulpengintzan**

Bestetik, itzulpen eta interpretazio jardunetan hizkuntza konbinazioa zabaldu eta hedatu egin beharko litzateke, betiere euskara tartean egonik. Izan ere, gizartea gero eta anitzagoa izango da, eta hizkuntza aniztasuna eta euskararen normalizazioa, biak ala biak, zuzen eta egoki ezkondu behar dira. Munduko gainerako hizkuntzen artean euskara jartzeak lagundu egingo lioke prestigioa eskuratzen eta are gehiago hedatzen.

Horrekin lotuta, Administrazioak jarrera ausartagoa hartu beharko luke itzulpengintza eta interpretazio zerbitzuetako hizkuntza konbinazioak zabaltzeko eta hedatzeko, betiere euskararekin. Izan ere, esan behar da euskarara oro har gaztelaniatik itzultzen dela, eta itzulpen ekoizpen horretan hizkuntza konbinazioak menpekotasun lotura sortzen diola euskarari gaztelaniarekiko. Horrek zeresan handia dauka hizkuntzaren normalizazioan. Horri dagokionez, euskarazko itzulpengintzan hizkuntza konbinazioa zabaltzea eta beste hizkuntza batzuk tartean sartzea oso aberasgarria izango litzateke euskararen normalizazioan. Administrazioak aukera paregabea dauka horretan hasteko eta ahal den neurrian joera hori indartzeko.

Horrek, halaber, lotura dauka Euskal Herriko Unibertsitatean Itzulpengintza eta Interpretazio ikasketak egin dituzten ikasleen promozioekin. Izan ere, aipatutako ikasketetan xede hizkuntza gisa euskara aukeratuz gero, atzerriko beste hizkuntza batzuetatik (ingelesa, frantsesa, alemana, etab.) euskarara itzultzen eta interpretatzen ikasten da, eta ez, ordea, gaztelaniatik euskarara. Ondoren, ikasle lizentziatu berriek Euskal Herrian aurkitzen duten merkatu errealean, ostera, gaztelaniatik euskarara itzultzea da hizkuntza konbinazio nagusia (Hegoaldean). Alegia, unibertsitate ikasketetan nazioarteko ikuspuntua aplikatzen da, eta, ondoren, lan merkatuan, berriz, egoera bestelakoa da. Esan daiteke, beraz, lotura falta dagoela unibertsitate ikasketetan proposatutako ereduaren eta sektore horretako lan merkatuaren artean. Esan behar da, halaber, txalogarria dela Euskal Herriko Unibertsitateak Itzulpengintza eta Interpretazio ikasketak antolatzerakoan hartutako ikuspuntua. Izan ere, euskara beste

hizkuntzen pare jartzen du Espainiako eta Frantziako erdaren menpe egon gabe, hau da, beste hizkuntza batzuetatik euskarara zuzenean itzultzen irakasten da, bitartean eta nahitaez gaztelaniatik edo frantsesetik pasatu beharrik gabe. Planteamendu egokia, serioa eta profesionala da EHUK egindako hautua eta horrek ere, merkatu errealean ongi bideratuz gero, eragin positiboa izango du euskararen normalizazioan.

Unibertsitateak egindako ahalegin horretan, gainera, ikasleei zenbait aukera eskaintzen zaizkie ikasitakoa jardun errealean praktikatzeko, batez ere interpretazioaren diziplinan; horren adibide gisa aipagarria da EHUK Tolosan urtero ospatzen den Abesbatzen Lehiaketako antolatzaileekin garatutako elkarlana. Abesbatzen lehiaketa horretan mundu osoko abesbatzak lehiatzen dira, eta astebete inguru ematen dute Euskal Herrian. Nagusiek zein haurrek osatutako abesbatzak izaten dira, eta lehiaketa barruko kontzertuez gain beste emanaldi batzuk ere eskaintzen dituzte, lehiaketatik kanpo. Bada, Itzulpengintza eta Interpretazio graduko zenbait ikaslek praktika gisa egonaldi hori abesbatzekin ematen dute, interpretazio eta laguntzaile lanak egiten. Egonaldi horietan, abesbatzek sariketan lehiatzeko kontzertuak eman behar izaten dituzte, baina, horrez gain, bestelako kontzertuak eta ekintzak ere egiten dituzte, eta horrelakoetan ikasleak aritzen dira interprete laguntzaile lanak egiten. Hala, EHU/UPVko Itzulpengintza eta Interpretazio graduan trebatutako ikasleek praktika profesionala eskuratzen dute, abesbatzaren jatorriaren arabera atzerriko hizkuntza baten eta euskararen artean. Gerora haien lan profesionala izango dena praktikan trebatzeko estrategia bikaina da, eta Administrazioak ere bide bera jarraitu dezake euskara beste esfera zabalago batzuetara eramateko.

Laneratzeko bide ezin hobea da, euskara beste hizkuntza batzuen pare jartzen du eta horretarako prestatutako gazteei lanerako aukerak eskaintzen die. Euskara lan tresnatzat daukaten itzultzaile-interpreteak munduko gainerako hizkuntzetako itzultzaile-interpreteen maila berean jartzen ditu, diglosia egoeran kateatu gabe, eta hortaz, euskarak ere prestigioa irabazi eta normalizazioan aurrera egiten du.

Horretarako Euskal Herriak eskaintzen dituen mundu mailako ekitaldi gehiago ere xede berdinarekin baliatu beharko lirateke, tartean Zinemaldia, Euskalduna Jauregian antolatzen diren makina bat biltzar, kirol ekitaldiak (Bilbon egindako Munduko Saskibalo Txapelketa), goi mailako jatetxeak... Horrelakoetan euskararen presentzia bermatu eta areagotu beharko litzateke, euskararen normalizazioa helburu gisa ezarriz, eta horretarako euskara normalizatzeko tresnak eta itzulpengintza eta interpretazioa diziplinak uztartu eta taxuz erabili beharko lirateke. Administrazioaren bultzada ezinbestekoa da horretarako.

Nabarmentzekoa da, hala ere, Bologna Planak aldaketak ekarri zituela itzulpengintza ikasketetan, eta orain, EHUn bederen, Itzulpengintza eta Interpretazio ikasketetan hizkuntza konbinazio gutxiago ikas daitezkeela duela

urte batzuk baino. Aldaketa horrek ere kalte egiten dio euskararen normalizazioari.

Arlo honetan, beste askotan bezalaxe, txalogarria eta miresgarria da Kataluniak aspaldi hasitako bidea; izan ere, Generalitatak lagundu eta babestu egiten du sona handiko ekitaldietan katalanak presentzia izatea. Marta Xirinachs honela azaldu zuen administrazio publikoak katalana beste esparru batzuetara ere zabaltzeko egindako lana:

*(...) La Generalitat, en 1991, aprovechando la oportunidad que representaba para la lengua catalana la celebración de los Juegos Olímpicos de 1992, decidió llevar a cabo la traducción de todos los reglamentos oficiales de los deportes olímpicos, al mismo tiempo que el TERMCAT, centro de terminología catalana, preparaba la edición de los diccionarios terminológicos correspondientes. La traducción se hizo a partir de las últimas versiones originales. Una editorial privada se hizo cargo de la edición de los reglamentos y de los diccionarios. Fue una oportunidad para incidir en uno de los sectores que despierta más interés entre los ciudadanos y especialmente entre la gente joven, como es el mundo del deporte.<sup>17</sup>*

## Interpretazioa

Aurreko paragrafoan aipatutakoaren haritik, interpretazioari dagokionez ere aplikatu du Kataluniako Gobernuak, eta halaxe zioen autore berberak:

*Para garantizar la presencia de la lengua catalana en encuentros internacionales en Cataluña, la Generalitat dispuso de un equipo de traducción simultánea, que cedía en préstamo con la condición de que el catalán fuera una de las lenguas oficiales de la conferencia. Paralelamente existía y existe una línea de subvención destinada a los gastos de traducción simultánea.<sup>18</sup>*

Pasarte horretan interpretazioaz ari da Marta Xirinachs. Itzulpengintzarekin batera ahaztu ezin den diziplina da interpretazioa. Ia erabat ahaztuta dago interpretazioa euskararen normalizazioari dagokionez; diziplina horretan ere euskarak gutxienez gaztelaniaren trataera baliokidea merezi du, eta, horretarako, esaterako, Eusko Jaurlaritzako kargudunek atzerrira bidaiatzen dutenean, euskararekin lan egiten duten interpreteak kontrata ditzakete. Gauza bera egin daiteke gonbidatu atzerritarrek EAera bisita ofizialak egitera datozenean Eusko Jaurlaritzak haientzat kontratatzen dituen interpreteen kasuan.

---

<sup>17</sup> Marta Xirinachs (1997)

<sup>18</sup> Marta Xirinachs (1997)



## **Aliantzak sortzeko premia**

Maila zabalagora joz, aliantzak sortzea ere behar-beharrezkoa izango da datozen urteetan; euskararen normalizazioan eta itzulpengintzan lan egiten dutenen mailan, esaterako, langile horien ahalegina eta esfortzua koordinatu eta koherentziaz antolatu beharko litzateke. Hizkuntza gutxitu baten normalizazioa lortu nahi duten komunitate bereko kide izanik, estrategiak, metodologiak eta edukiak partekatuz gero lan emankorragoa lortuko litzateke. Udalerrietako euskara teknikarien sareak osatu diren moduan, itzultzaileen sareak ere sortu beharko lirateke, baita udal itzultzaileen topaketak edo jardunaldiak ere (teknikariek egin ohi dituzten Udaltopen pareko zerbait); horrez gain, itzultzaile eta teknikarien sareak osatzea ere aztertu egin behar da, formatu egokia emanez gero emaitza aberasgarriak ekar ditzakeelako.

Aliantzak maila altuagoan ere lortu behar dira, erakundeen mailan, adibidez. Erakunde ofizialek gaur egungo lurralde estatusa errespetatzen dute, bakoitzak bere lurraldean egiten du lan, euskara normalizatzeko auzokideekin koordinatu gabe. Beste arlo batzuetan, berriz, koordinatu egiten dira, adibidez Akitania eta Euskadi lurraldeak maiz elkartzen dira hainbat gai elkarrekin sustatzeko (turismoa, Abiadura Handiko Trena, etab.), edota Eusko Jaurlaritzak ikastolak babesten ditu Iparraldean, bi adibide aipatzearren. Bada, euskararen egoera larriak behar-beharrezkoa du erakunde guztien elkarlana eta elkarrekiko laguntza, eta horretarako lurralde desberdinetako gobernu organoen arteko aliantzak sortzea oso lagungarria izango litzateke. Aliantza horietan beste era bateko entitateak ere parte har dezakete, esaterako unibertsitateek, Euskaltzaindiak, hedabideek...

Aliantzak garrantzitsuak izango dira, halaber, aipatutako gai ugariaren gaineko ikerketak eta abiarazitako esperientzien emaitzak aztertzeko txostenak idazteko. Izan ere, komenigarria litzateke etorkizunean gai hau ikertzea eta ondorio argiak lortzea, eta, horrekin batera, nazioarteko esperientzietatik ere ikasi beharra dago; horretarako ere aliantzak sor daitezke, entitate publiko eta pribatuen artean, arlo honetako ikerketa bultzatzeko eta horretaz arduratuko den lantalde, behatoki edo bestelako erakunderen bat sortzeko.

Aliantza horiek, halaber, enpresekin ere egin beharko lirateke. Jakina da Administrazioak eta erakunde publikoek hizkuntza bat erabiltzeak hizkuntza horren hedapenean, normalizazioan eta prestigioan izugarrizko eragina daukala. Alabaina, horrekin bakarrik ez da nahikoa. Gizartearen beste sektore batzuek ere ahalegin berdina egin behar dute hiztunak aktibatzeke eta erabilera esparru guztietara zabaltzeko, hezkuntzan, hedabideetan, aisialdian, baita enpresen munduak ere. Hala, hainbat enpresa dagoeneko euskara planak garatzen ari dira, batzuek aspalditik gainera. Horiei laguntzeko aliantzak sortzea ere lagungarria izango litzateke.

## **Sektore pribatua**

Euskara planei dagokienez, enpresa batzuek, gainera, material osagarria ere sortu izan dute, kasuan kasuko sektoreko glosarioak edo hiztegiak, adibidez. Hala, itzulpengintza baliatuz euskararen normalizaziorako abiarazitako ekimenak dira, besteak beste, Danobat enpresak egin eta ondoren publikoaren eskuragarri jarri zuena bere webgunean. Administrazioak aliantzak sor ditzake horrelako proiektu gehiago bultzatzeko.

Euskara planak sortzeaz gain, are gehiago, euskal enpresak nazioartean gero eta gehiago hedatzen ari diren garai honetan, euskal enpresek nazioartekotze prozesuetan interpretazio zerbitzuak erabili dituztenean, enpresa gutxik baliatu dute euskara munduko beste hizkuntza batzuekin konbinatuta. Administrazioak horretarako laguntza ematea (ekonomikoa zein beste era batekoa) hasiera ezin hobe izango litzateke.

Enpresak ugarik euskara normalizatzeko planak dituzten arren, gutxik heldu diote hizkuntzen tratamenduaren gaiari, alegia euskararekin batera gainerako hizkuntzei eman behar zaien tratamenduaren gaiari. Atzerrian hedatu diren konpainien artean garrantzitsua da enpresak antolaketa jakin bat eskuratzea hizkuntzei dagokienez, beste hizkuntzatan funtzionatzea ahalbidetuz eta, aldi berean, euskararen normalizazioan aurrera eginez. Aipatutako enpresa gutxi horietako bat Cikautxo da. Berriatuan (Bizkaia) dagoen enpresa hau 1971. urtean sortu zen, hogei mutil gaztek Lea-Artibai eskualdean lan egiteko gogoia zutelako, Euskal Herrian ordurako martxan zegoen mugimendu kooperatiboaren babespean. Kautxuz eta plastikoz egindako hainbat elementu ekoizten ditu, sektore askotan erabilgarri direnak, besteak beste, automobilgintzan, etxetresna elektrikoaren sektorean edota medikuntzaren arloan. Lea-Artibaitik abiatuta, enpresak hainbat egoitza zabaldu ditu munduko beste txoko batzuetan, besteak beste, Eslovakian, Txekian, Txinan edota Indian, eta horrek hizkuntza kudeaketa ere aldatu du.

Nazioartekotze prozesu horren haritik, enpresak hizkuntzen tratamenduaren gaiari heldu behar ziola erabaki zuen, eta, hala, 2013. urtean Cikautxo Taldearen Hizkuntza Politika Orokorra izeneko agiria onartu zuen enpresako kontseilu errektoreak (lehenago, 2002. urtean, Berriatuko plantan euskara normalizatzeko plana abiarazi zuten). Cikautxo Taldearen Hizkuntza Politika Orokorra dokumentua publikoki zabaldu ezin bada ere, badira hona ekartzeko moduko hainbat datu adierazgarri. Izan ere, agerian geratzen da enpresak hizkuntzen erabilera kudeatu nahi zuela; are gehiago, gai hori modu heldu eta serioan jorratu zuela ere frogatuta geratzen da agiri horretan.

Horrez gain, agerian geratzen da, baita ere, enpresak planta bakoitzaren tokiko hizkuntzaren erabilera bermatu nahi duela, tartean, eta bereziki, euskararena. Izan ere, enpresak hasiera-hasieratik eman zion garrantzia berezia euskarari, entitatearen printzipio eta estrategia agirietan azaldutakoarekin bat

etorriz. Baliteke enpresa eskualde erabat euskaldun batean kokatuta egoteak eragina izatea horretan. Hala, Berriatuko plantan euskarak lehentasunezko tratamendua jasotzen du, gaztelaniaren gainetik. Halaber, Berriatuko plantan gauza gehienak euskaraz eta ingelesez ageri dira eta langileek ere horrela funtzionatzen dute edo helburu hori lortzeko lanean ari dira, gehienetan gaztelania ere aukeran daukaten arren.

Enpresak zinez eredugarri jokatzen du hizkuntzen trataeran; izan ere, ingelesa uneoro erabiltzearen aldeko hautua egin zezakeen, hizkuntza globala eta norabide guztietan komunikatzeko baliagarria den aldetik. Aitzitik, tokian tokiko hizkuntza zaintzearen aldeko hautua egin du Cikautxok, eta, horrekin batera, euskara munduko beste hizkuntza batzuen parean jarri du, hiztun askoko eta eragin handiko hizkuntzekin batera.

## **Azken hitza**

Hortaz, lana bukatzeko, eta hausnarketa nagusi gisara, esan behar da paradigma aldatzeko unea iritsi dela. Euskaratzeak ezin du hizkuntza normalizazioa oztopatu eta ordezkatu; euskarazko itzulpengintza beste esparru batzuetara eraman behar da, horretarako profesional prestatuak daudela baliatuta, eta hizkuntzaren normalizazioan euskarak erabilera eremu gehiago irabazi behar ditu; horretarako, esan bezala, Administrazioak bultzada eman behar du eta gainerako eragileekin aliantzak lortu behar ditu.

## BIBLIOGRAFIA

ARBURUA, Patri (2007) in *Euskararen normalizazioa udalerrietatik*, Larrun, Argia.

ARRUTI, Iñaki (2014). HIZNETeko material didaktikoa

BAIXERAS, Xabier (1994). *Gizarteak ez du erantzuten*. Argia aldizkaria.  
<http://www.argia.eus/argia-astekaria/1504/gizarteak-ez-du-erantzuten>

BUJANDA, Ioana. *Itzulpena arlo juridikoan*  
[http://www.ehu.es/ehusfera/garalex/files/2011/03/ITZULPENGINTZA-arlo-juridikoan\\_Ioana-Bujanda.pdf](http://www.ehu.es/ehusfera/garalex/files/2011/03/ITZULPENGINTZA-arlo-juridikoan_Ioana-Bujanda.pdf)

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 28. zk. 2014ko otsailaren 11. *Erabakia, 2013ko abenduaren 3koa, Administrazio Kontseiluarena, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan Euskararen Erabilera Normalizatzeko II. Plana onartzen duena.*

JAKA, Aiora (2005). *Literatura en lengua vasca y traducción*. Transcript eta Basqueliterature.com <http://www.basqueliterature.com/es/basque/itzulp>

OREGI, Eneko (2004). *Itzulpenaren harian: IZOren ekarria*. Hizkera Juridikoa eta Itzulpengintza: euskararen norabideak jardunaldiak, Deustuko Unibertsitatea.

OREGI, Eneko eta NIKOLAS, Zelai (2010). Korredakzioa araugintzan. Itzulpenaz harago. Iritzi-muinetik. Erabili.com.  
[http://www.erabili.eus/zer\\_berri/muinetik/1264492222/#ref3](http://www.erabili.eus/zer_berri/muinetik/1264492222/#ref3)

XIRINACHS, Marta (1997). *La traducción como instrumento de normalización lingüística*. Senez aldizkaria.  
<http://www.eizie.eus/Argitalpenak/Senez/19970101/xirinachs1>

